

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Egikaritzea

Hasierako onespena ematea Salburuan dagoen RD-12 lurzatiaren xehetasun-azterketari: lurzati hori HAPOaren berrikuspen partzialaren ondoriozkoa da, hain zuzen ere, Zabalganeko lehengo 2., 3., 5. eta 6. sektoreek eta Salburuko 7, 8., 9., 10. eta 11. sektoreek osatzen zuten lurzatia, gaur egun A-13 eremua

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 8an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Salburuan dagoen RD-12 lurzatiaren xehetasun-azterketari: lurzati hori HAPOaren berrikuspen partzialaren ondoriozkoa da, hain zuzen ere, Zabalganeko lehengo 2., 3., 5. eta 6. sektoreek eta Salburuko 7, 8., 9., 10. eta 11. sektoreek osatzen zuten esparruari dagokionez HAPOa berrikustearen ondoriozkoa; xehetasun-azterketa J. J. L.k eta T. G. M.k idatzia da, Serene Living Homes SL sozietatearen eta Basalde Bi SA sozietatearen ekimenez, nahiz eta, behin betiko onetsi aurretik, dokumentazio berria aurkeztu beharko den paperean eta CDan, 2026ko apirilaren 14ko data duen txosten teknikoan adierazitako zuzenketekin.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua araberak, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea jaso ezean, eten egingo da behin betiko onesteko epea.

3. Dosierri jendaurrean jartzea, hogeit egunez, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, eragiten diela uste duten guztiek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten alegazioak eta oharak egin ahal izan ditzaten epe horretan.

Dosierri Vitoria-Gasteizko Udalaren Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, Vitoria-Gasteiz —, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 13an

Alkatea-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA